

independentzia:

Engels-ek

Pablo Iglesias-i



Joxe AZURMENDI

Aurten, berriro, Marxen urtea da, baina hobe dugu Marx ez Engels gabe gogoratzea. Engelsek Pablo Iglesiasi egin zion gutun bat aipatuko dut, ez bait da oso ezaguna.

Independentziaren egunak toki askotan ospatzen dira. Urrunago gabe, Espainian maiatzaren 2.a independentzi eguna da. 1808ko egun horretan espainolak okupatzaile frantsesen aurka altxatu omen ziren.

Atzerakoiak eta aurrerakoiak

Ageri-ageriko problemak dauzka hor. 1808ko frantsesek Espainian apenas dirudite askoz okupatzaileago eta inbasoreago, karlistadetan tropa liberal espainolak euskal herrietan baino. Eta, bigarren, liberalok Euskal Herrian progresistak baldin baziren, eta karlistak atzerakoiak, 1808ko aurrerakoiak Espainian frantsesak ziren eta haien gisako «afrantsesatu» deituak. Progresisten aurka-

ko independentzia ospatzen da.

Hau dena esaten dut, oraintxe guxtiago, baina urteren batzuk duela, abertzaletasunaren xedeak erreakzionariotzat jotzen zirelako; horrekin, beste gabe, abertzaletasuna deskalkifikatuta geratzen zelakoan.

Eta oraindik ere hor geratu da, «progresisten» batzuen betiko mania, borroka abertzaleari edozein arazotxotan, errepika zahar bezala, auzokeriagatik edo herstukeriagatik burla olinpikoa egiteko errekurso erraza.

Aberriak momentuan momentuko edukin soziala eta politikoa dizun neurrian, 1808ko aberri espainola besterik ez zen Errege familia lerro bat baino, Gorte ustel bat, egoismo ahalguztiduneko klerikaila, noblezia parasitarioa, militar kasta endakatu bat. Erreforma zaleak, progresistak, afrantsesatuak ziren gehienbat.

Beraz, oso klasikoak izan diren eskemak aplikatzekotan, Goyaren 2 de mayo koadroen aurrean, afusilatzaile gaisoek merezi beharko lukete gure sinpatia guztia. Mostolesko Alkatea, gerrilak eta gerrileroak edo Aragoko Agustina, beren zapaltzaileen defendatzaile tontotzat eta kuittadutzat jo beharko genituzke.

Baina, de fakto, historia, berehalaxe enkargatzen da eskema guztioi buelta emateko. Askatasunaren borroka bere lege orijinalak ditu, beti eta derrigor «progresoaren» legeekin koinziditzen ez dutenak. Izan ere, progresoari askatasunarekin koinziditu araztea da kontua, ez alderantziz.

Langile mogimendua

XIX. mendeko langile mogimendua hasi zenean, teoriko haundiek nazio arazoan gaintetikoz hartu zuten mogimendu hau. Izan ere, badu alderdi hori, eta inportantea da, oraintxe ere badu. Baina hori ez da mogimenduaren natura metafisiko bat, esentzia bat, alderdi bat baino. Eta beste alderdi asko du, errealtateak beti alderdi asko duen moduan.

Marx eta Engelsen artean azkenean hau izaten zen nazioarteko gorabeheraz arduratzen zena. Laster



ohartu zen, Espainiako katramilen analisisetan, beti 1808 hartan bukatzen zela. Hau da, Poloniako antzera, nahiz bestela izan, Espainian ere borroka sozialarekin lotu-lotuta beti «nazio arazo» nahasi bat aurkitzen zela.

Gero, nik ez dut uste Engelsek liberalen eta karlisten istiluak zer ziren eta azpian zer zeukaten, oso ondo inoiz ikusi zuenik barreneraino. Baina beste hau bai, ikusi zuen. Honela idazten zion Pablo Iglesiasi 1893ko apirilean:

«Alde batetik (1808ko maiatz hartan) erasotzaile arrotza, bestetik Madrilgo herria... Espainol herriak, erasoaldi arrotza eta Napoleonen tirania borrokatzeko,

Frantziako iraultza bera borrokatu beharra izan zuen; eta bere independentzia berriro eskuratzeko, espainol herria beharturik berriro



eraikitzen, noblezia eta apezak bait ziren haren sostenguak».

Hori ez dela Espainian bakarrik horrela gertatu, esanez jarraitzen du: «Gauza berbera Italian, Alemanian, are Frantzian bertan ere: erreakzio monarkiko feudalari beren buruak erreparorik batere gabe entregatuz bakarrik, lortu ahal izan dute bi herriok askatasuna, Napoleonen uztartetik».

Ezagunagoa da Engels zaharrak behin Kautskyri ohartarazitakoa: «Herri haundi batentzat historikoki inposible da bere baitako beste auzirik seriozki eztabaidatu ere egin ahal izatea, askatasun nazionala falta zaion artean».

(Gauza jakina da, haatik, Engelsek berak, berjabetasunaren inportantzia «nazio haundietara» mugatzen zuela; baina, orobat jakina, mugadura haren apreziazio oker batetan oin hartzen zuela, herri ttipiak iraultza industrialaren nahasmenduetatik ez zirela bizirik irtetzeko gauza izango, iruditzen bait zitzaion).



Askatasuna eta independentzia

Lehenengoa askatasuna da. Independentzia ez da ondorio bat besterik. Hobeto, ondorio posibleetako formula posible bat.

Zer da independentzia? Berez oso kontzeptu ekibokoa dela, esango nuke lehenengo. Ez dut uste gauza berbera direnik Luxenburgoren independentzia eta Ingalaterrarena; edo Ukrainiarena, Mongoliarena eta Sobiet Batasunarena (Ukrainiak eta Mongoliak beren errepresentazioak daukate ONU). Ez dut uste, esate baterako, gauza bera denik ere 1983an eta 1808an.

Niretzat inportantea; ez da berdin borrokaren erdian esaten den «independentzia!» eta legeria batetan txukun-txukun espresa litekeen nolako edo halako independentzia.

Guk, nik uste, independentzia esaten badugu, egoera jakin batetan esaten dugu. Eta oraingoxe bere sentidoa da inportantea, ez beste egoera hipotetiko batetan, paper batetan agian, izango lukeen edo izan leza-keena. Norbaitek egoera hartan amets egin nahi badu, libre dauka amets egitea. Baina inportantea oraingoa da, oraingo hau ez bait da formulen eta paperen ordua, borrokarena baino.



Askatasunaren bidaztia

Kontzeptuak historian daude eta historia honetan hauxe dago hasieran: «los bizkainos no queremos otra cosa sino que la nación española retire de nuestro territorio su dominación; para que Bizcaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libremente, sin estar sometidos a más poder superior que el Señor de todo el universo».

Instituzio foralen suntsipen ondoko belaunaldia normala zen borroka politikotik abiatzea. Instituzioak baino oinarrianago herria dagoela, ikusi zen gero, eta herritasunean hizkuntza. Independentziak, harrez gero, kulturaren barrutira hedatuz, euskararen borroka esan nahi du orobat.

Maila soziala deskubritu zen hurrengo. Nazio bat gara, herri bat: baina ia bere oso-osoan herria langile-riak egiten du. Ez dago herriaren askatasuna eskatzerik langileriaz ahazturik.

Emakumearen borroka, ekologia, presoena, homosexualena... Askatasunaren mogimendua zabalduz

eta zabalduz joan da. Geroz eta gehiago izan dira Euskadin, progresoa bai, baina batez ere askatasunaren progresoa, bilatzen dutenak: Aberraren Egun argi bat, baina guztiontzat. Independentziaren kontzeptua eginez-eginez doa, sakonduz eta zabalduz.

Arana Goiriren tradizioan

Kontzeptuek beren tradizioaren barruan erakusten dute beren adiera zuzena, edukin zehatza. Hau azpimarratzen dut, independentziaren kontzeptua, berez, kontzeptu negatibo soilak delako. Independentziak ez du «ez-dependenzia» besterik esan nahi. Baina hemen, independentzia esaten denean, zerbait oso positiboa uler-tzen da, ez negatibo hutsa.

Positibo hori, hain zuzen, tradizio batek betetzen duelako, dauka. Eta tradizio hori Arana Goirirena da: «absoluta independencia de Bizcaya contra toda política española» esijitu zuenarena. Esan zuenarena: «Bizcaya no es de derecho española, como no sea por el actual derecho constitucional; si de hecho es provincia española, lo es a pesar suyo y contra su voluntad».

Sabinek hasitako borrokak gero jarraitu egin du. Eta borroka luze hori da, Aberri Egun honetan, independentziaren kontzeptua edukin positiboz betetzen duena, sentidoa ere zabaldu diona. Bestela ez litzateke kontzeptu eteriko bat besterik izango, negatibo hutsa gainera. Ongiena paper batetan egongo litzateke, gar-



bi-garbi, inori molestatu gabe. Arana Goirik, aldiz, independentzia kontzeptuaren edukina ilun samar bazeukan ere, bizi-bizi zeukan eta molestatu egin zuen, molestatu egiten du oraindik. Independentziak zer esan nahi duen, egin ala ikusten da, borro-kak argitzen du. Gaur hobeto dakigu atzo baino, bihar gehiago jakingo dugu.

Batzuetan, izan ere, independentzia eskatzen duten horiek utopiko hutsak direla eta ez dakitela zer eskatzen duten, entzuten da. Baina aldrebes da: horiek dira kontzeptuari sentidoa eta edukina ematen diotenak. Ezer argituko ez dutenak, definizio batetatik hasi nahi dutenak, dira: sekula ezin aterako dira kontzeptuaren berezko negatibotasunetik. Positiboa, egin egiten ari denak bakarrik ikasten du. Hasieran ilun zegoen, orain argixeago, ikusiko dugu azkenean nola geratzen den eginda. Egiten dugun bezalakoxea izango da. Egin gabe ez da ezer izango. ■

